



1974 - 2024 • ZABALTZEN

HEZIKETA BEREZIAN

Lan Hitzarmen berri baten alde

20 urte pasatu dira egun dugun lan hitzarmena sinatu genuenetik, 2018an akordio partziala sinatu genuen eta orain lan hitzarmen berria lortzeko unea da

Soldata

Hezitzaileen soldata Haurreskola Patzuergoko hezitzaileekin parekatu 2024an, 2025ean eta 2026an modu progresiboan

Funtzioak

Negoziatu. Gure lanaren errealitatera egokitu eta menpekotasun hizkuntza kendu.

Ratioak

Zehaztu eta mugatu kolektibo guztietan.

Euskalduntzea

Euskalduntze plan globala eta birziklapen egokia bermatu.

Lanaldia

30 ordukoa Heziketa Bereziko kolektibo guztientzat.

- HLE eta ZHlentzat 25 orduko arreta zuzena eta 5 ordu orientazio/ziklo/ebaluazio/guraso... bileretara eta klaustroetara joateko.

- ZHlen kasuan interpretazio-saioek ez dute gaindituko etenik gabeko 3 orduko iraupena.

- Gizarte langileek, OTek eta fisioek lehen hezkuntzako irakasleen arduraldia izango dute.

Formazioa

Programak indartu. Gure lanak eskatzen duen etengabeko formakuntza bermatu eta gure egunerokotasunera egokitu.

Plantillak esleitzeko irizpideak

Lanpostu guztiak mantentzea eta egungo beharrak eta etorkizunekoak aztertuz, egungo eskolaren erronkei erantzuteko plantilla esleitzeko irizpideak adostu. Aniztasun eta inklusiorako baliabideen horniketa-irizpideak negoziatzea, kolektibo ezberdinen berezitasunak kontutan hartuta. Jardun erdiko bakanteak osora pasatzeko plana eta ekoizpenagatiko kontratuen iraupena adostea.